



ERREPORTAJE LEHIAKETA
EL KARMA ALDIZKARIAREN HAMARGARREN URTEMUGA 1999-2009
Sari bakarra: 2009 euro eta gehiago.



1. **ERREPORTAJEA:** Erreportajea, jatorrizkoa, argitaragabea eta umorearen bidetik eginga izanen da, eta gizarte intereseko gai bat jorratuko du, euskaraz edo gaztelaniaz, eta honela egonen da egitaratua.
 - 1.1. Izenburuaurrekoa.
 - 1.2. Izenburua.
 - 1.3. Sarreratxoa: berrehun karaktere, zuriuneak barne.
 - 1.4. Testuaren gorputza: hiru mila karaktere, zuriuneak barne.
 - 1.5. *Kalean hartutako* hiru testigantza: Bakoitzak hirurehun eta hogeita bost karaktere izan beharko ditu, zuriuneak barne. Hauek adierazi beharko dira: testigantza ematen duenaren izen-abizenak eta jarduera.
 - 1.6. *Basakarrizketa* pertsonaia aipagarriren bati:
 - 1.6.1. *Basakarrizketa* egiten zaion pertsonaren izen-abizenak eta bere jarduera.
 - 1.6.2. Izenburua: *Basakarrizketatik* ateratako aipamen bat.
 - 1.6.3. Sarreratxoa: ehun eta berrogeita hamar karaktere, zuriuneak barne.
 - 1.6.4. Gorputza: mila zortziehun eta berrogeita hamar karaktere, zuriuneak barne, eta gutxienez, zortzi galderaz osatua.
 - 1.7. Hiru webgune, hautatutako gaiaren erreferentziazkoak.

2. **EPAIMAHAIA:** Epaimahaia K taldeko kideek osatuko dute, EL KARMA umorezko aldizkariaren editoreek. Epaimahaiak saria eman gabe uzten ahal du. Nolanahi ere, bere epaia apelaezina izanen da. Aurkeztutako lanak ez dira itzuliko eta haien inguruan ez da inolako komunikaziorik egingen.
3. **HARREMANA:** Harremanerako datuak, (izen-abizenak, helbidea, e-posta eta telefonoa), erreportajearekin batera, PDF artxibo bakar batean bidali beharko dira, e-postaz, helbide honetara: concurso_reportajes@humorenlared.com. *Gaia* gelaxkan hau agertuko da: EL KARMAren ERREPORTAJE LEHIAKETA. Lanak jasotzeko epea 2009ko otsailaren 9an bukatuko da, 09:09an.
4. **SARIA:** Saria, bakarra eta banaezina, hauek osatzen dute:
 - 4.1. Bi mila eta bederatzi euro eskudiruan. Zenbatekoa ez da emanen 2009ko Europako Parlamenturako hauteskundeetan biharamuna arte.
 - 4.2. Erreportajea EL KARMA aldizkarian argitaratuko da.
 - 4.3. EL KARMA aldizkariaren bizi bitarteko harpidetza.
 - 4.4. PKD (Partido del Karma Democrático) alderdiaren zerrenda-buru izatea 2009ko Europako Parlamenturako hauteskundeetan.
 - 4.4.1. Irabazleak konpromisoa hartzen du, honek dakartzan onura eta sufrikario guztiekin, hauteskunde kanpainan eta aurrekanpainan egunero eta ekitaldi guzti-guztietan zerrenda-buru gisa parte hartzeko.
 - 4.4.2. Diru-saria jasotzeko, ezinbestekoa da kanpainan parte hartzea, PKD alderdiak erabakitako jarraibideen arabera.
 - 4.4.3. PKD alderdiak, egunero eta gutxienez, katilu bete arroz emanen dio hautagaiari eta nahi adina ur.
 - 4.4.4. Alderdiaren segurtasun zerbitzua jo eta fuego ahaleginduko da hautagaiak eskaintzen dizkieten irainak entzun ez ditzan, eta paperezko burbuila bat helaraziko diote balizko kalterik gerta ez dadin.
 - 4.4.5. PKD alderdiak Parlamentuan ordezkaritza lortuko balu, zerrenda-buru den hautagaiak dimititu egingen du.
 - 4.4.6. Dimisio gutunak ez du datarik agertuko eta alderdiaren zuzendaritzak prestatuko du, ditxosozko lehiaketaren epaia ezagutarazi eta gero. Gutuna jasota, irabazleak 72 orduko epea izanen du hura sinatu eta itzultzeko. Aipatu epean epaimahaien esku ez balego, ulertuko da saridunak uko egin diola sariari.
 - 4.5. Saritutako pertsona adingabea bada, saria 18 urte betetzen dituen emanen zaio. Itxaron ezinean badabil, saria emateko ezinbestekoa da bere gurasoen edo legezko tutoreen idatzizko baimena. Kasu horretan baimen emailearen NANaren fotokopia bat eman behar da eta saria, ezinbestez, azken honi emanen zaio.
5. **ONARTZEA ETA BETETZEA:** Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar oinarriak ezagutzen eta onartzen direla. Oinarriok ez betetzeak aurkeztutako lanaren kanporatzea ekarriko du.